

MANUEL YABEN -AKORDEOI, PIANO ETA ORGANO JOLEA-

“Musikari sentimendua behar zaio eman, bestela, ez da musika”

■ Yabenek dionez, “musika barruan” dauka berak, “musika etorri” egiten zaio ■ 1952an, Hernanira bizitzera etorri zenean, kale eta tabernetan sekulako festa jarri omen zuen ■ Munuelek 86 urte ditu eta oraindik lanean dabil.



Manuel Yaben 86 urteko musikari haundia organoa jotzen, etxean.

MANUEL YABEN jaunari musika etorri egiten zaio. Barruan daukana atera. Kronikak bere bizitzako akorde batzuk atera dizkio.

■ KRONIKA: Nondik nora hasi zinen musikan?

YABEN: Aita tenorra nuen eta koruan kantatzen zuen. Osaba, berriz, organista eta harek eman zizkidan lehen musika klaseak. Gero, beka lortu nuen seminario batera organoa ikastera joateko. Lehenengo soinu-jotzea Zestuan egin zuen Uztapide bertsolariak eramanda.

Ikusten nuen bazela jendea akordeoitik bizimodua ateratzen zuena. Eta, pentsatu nu-

en nik neuzkan konoizimentuekin nik ere hor zeozer egin nezakeela eta hala erabaki nuen.

■ **Handik gutxira, Espainiako Sari Nazionala irabazi zenuen.** Bai. Aurretik banebilen han eta hemen kontzertuak ematen eta saria eta gero gelditu gabe ibili nintzen: Espainian, Portugalen, Frantzia, Marruekos... Baina, bizimodu hori ez zitzaidan gustatzen. Ezkondua nintzen eta umeak neuzkan. Ibilera horrekin ze edukazio eman behar nien nere umei? Hala, bizimodu hori utzi eta Hernanin jarri ginen bizitzen.

■ **Hernanin ez zizuten badaezpadako ongi etorria egin.** Omenajea egin zidaten bai. Iritsi nintzen egunean alkatea

etxera oska: “Badakigu Hernanin gelditzen zerala eta herrian jo behar dezu. Nahi dezun tokian, nahi dezun bezala eta nahi dezun ordutan” esan zidan. Astindu ginuzen bazterrak ederki! Hiru egunetan gelditu gabe aritu nintzen tabernetan, kalean...

■ Musika Akademia ere jarri zenuen.

Bai, etxean erakusten hasi nintzen. Nik ere maisuak izan ditut, baina, gehiena nere kasa ikasia naiz eta hori erakusteko erraztasuna neukan. Nere iritziz, nik nekizkien gauzak ondo erakutsi ditut.

Musika barruan daukat nik. Etorri egiten zait. Gero, musikari sentimendua behar zaio

■ 1915eko azaroaren 12an jaio zen, Berastegin.

■ Osaba Pedro Etxeberria zuen pianista eta harekin hasi zen ikasten. Gero, Organista beka bat lortu eta Bizkaia Lejabeitia seminarioan egin zituen bi urte.

■ Estatuko Akordeoi txapelketa irabazi zuen. Hernanira etorri zenean Udalak Herriko Seme izendatu zuen.

■ Talde askotan ibili da. Estatu osoan, Portugal, Marruekos eta Frantzia kontzertuak eman izan ditu.

■ Hernanira etorri zenean bere soinuarekin sekulako festa jarri omen zuen.

■ Musika Akademia du.

■ Hernaniko kontserbatorioan 14 urtez erakutsi du.

■ Bere 86 urterekin, organista da Juan Bataiatzailea elizan.

eman, bestela ez da musika. Uste det horretan, sortzen eta gauza bakoitzari bere sentidua ematen ondo erakutsi dedala.

■ Hernaniko Kontserbatorioan ere irakasle izana zara?

14 urte aritu naiz erakusten, bai. Aurretik Juan Jose Iruretagoienarekin (Juan Jose Orio, esaten genion) aritu nintzen Donostiako seminarioan, han ere 14 urtez. Eta gero, haren bidez sartu nintzen kontserbatoriora.

■ Hernanin zer maila dago musikan?

Gogorra! Maila gogorra dago, bai. Esaterako, Joxan Goikoe-txea oso ona da. Beste garai batzuk harrapatu ditu eta klase haundia du. Gu ez gera horeraino iristen. □

■ IGERIKETA

Konpetizioa Hernanin

■ Neguko Ligako probak jokatuko dira gaur Hernanin. Seniorrak eta kadeteak arituko dira: herriatik 9 igerilari, denera. Probak arratsaldeko 16:00etan hasiko dira.

■ FUTBOLA

Trintxerpe-Hernani

■ Hernaniarrek 13garren postuan eta 13 punturekin jokatuko du, Ligako 13garren partidua. Trintxerpe 12garren dago 16 punturekin. 16:00etan

■ MAHAI TENISA

Partiduak, Hernanin

■ Liga Autonomiko eta Probintzialeko partidua Hernanin jokatuko dira. Autonomikoan, Easo-Hernanik, Luberriren kontra du.

■ PELOTA

Gipuzkoako Txapelketa

■ Eskuz, Alvarez-San Sebastian eta palaz, Manzisidor-Martinez semifinaletara pasalitezke, gaurko partidua jokatuta.

■ ESKUBALOIA

Hernani-Lakua

■ Hernaniko neskek gasteiztarren kontra jokatuko dute gaur, kiroldegian. 19:00etan.

OIALUME BILTOKIA.

Igande eta jai egun guztietan dantzaldia
19:30etatik aurrera

OIALUME AUZOA - 943 55 29 38

Antziola-Motor
Zerbitzu Ofiziala

Ikusi al duzu Mondeo berria?

Antziola Motorren ikusi eta probatu egin dezakezu.

Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96 HERNANI

- ▶ Kotxe berri eta aukerakoen salmenta
- ▶ Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- ▶ Aseguruen gestioa
- ▶ Finantziarioak
- ▶ Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu

Honako eskeintza hauek dauzkagu zuretzat:

mobila : SIMENS M35i
9.900 pta kontratuarekin.

mobila : PACK ACTIVA
14.900 pta (Telefono guztietan 5.000 pta deietan)

ITXASTELE S.L. Telyco denda
Elkano 13, ☎ 943 33 26 00

Movistar Activa
Hartu eta hitzegin

⇒ 'Telefonica'ko banatzailea

⇒ Movistar

⇒ Zentralitak

⇒ Faxak

⇒ Telefonía mugikorra

⇒ "Via digital", inalanbrikoak,...

ordenagailua:


AMD 900
15" Monitora
56 Kb Barruko Modema
Soinu T. eta Altabozak

48.900 Pts

203,89 € IVA 10% no incluído. Precios fijos en IVA

Floridan 130 lagun bilduko dira gaur, emakume bazkarian

■ Emakumeen bazkaria akontezimendua bihurtu da Florida.



Floridako eskolako ikasleak, gerra aurrean. Erdian Leontxi andereñoa. (Arg. Illarramendik utzia)

EGUN haundia dute gaur Floridan. Floridan bizi izan diren 130 emakume bilduko dira, bazkari aitzakian. Batzuk oraindik Floridan bertan bizi direnak, besteak herrian, probintziatik ere asko datoz eta Zaragozatik ere bakarren bat etortzekoa da. Lista ez da hor bukatzen. *Leontxi* ere, urte askotan Floridako eskolan mais-

tra izandakoa etortzekoa da: *Leontxi* 90 urtetik gora ditu.

Florida asko aldatu da eta tarteka Etxeberri eta biak nahasten dituzte, gazteenek behintzat. Gaur, bilduko direnak ez dira *Floridakoak huts hutsean*, ez. Gehienak dira: *Bestizanekoak, Serrerikoak, Artetxekoak, Cumbrekoak, Sagastiyakoak, Etxeberrikoak,*

Arrietaenekoak, Etxehaundi-koak, Vista Alegrekoak, Mendiakoak...

Menua: entremesak, kokotxak, solomilloa eta postrea.

Detale artistikoa: Pilar Beltzuntze Txillidaren emaztea Floridakoa da. Txillidak lehen lanak Floridan egin zituen, Manuel Illarramendiren herrian. Arantzazuko ateak ere bai.

JASOTA BEZALA

Asier Ormazabal eta Kepa Pikabea, euskal presoak estatu frantsesean.

Pasa den udaberritik hona ezin kontatuak dira Asierrek pasa dituenak. Zehatz, zortzi espetxe desberdinetatik igaro arazi dute: Chateaudun, Bois D, Arcy, Fresnes, Bomettes, Draguignan, Fresnes berriz eta beste bi espetxe gehiago. Orain dela bi hilabete t'erditik hona, sei espetxe "bisitatu" ditu. Bitarte horretan, bisita pare bat gutxienez, galdu izan ditu. Horietako espetxe batean, bere aita kartzela barruan zegoenean semea bisitatzeko asmoarekin, Asier trasladatua izan zela esan zioten. Fresnesen berriz, isolaturik egon da egun horietan. Hurrengo bisitarako, gurasoak,

dena prestaturik zutenean urrutiko kartzelara joateko, Asier han ez zegoela abisatu zieten azken momentuan. Buru-hauste izugarriak dira eta telefonoz emandako azalpenak, gutxi eta gaizki emanak izan dira. Eta gainera, gurasoei abisatu zieten, Asierrek jaso zitzaizkien bisita bakarrak beraienak izango zirela, anaia, izeba-osabek edo gainontzekoek ikus zezaten debekatuz. Inork ezin zuen Asier bisitatu, gurasoek ezik.

Beste hainbeste esan dezakegu Kepa Pikabeari buruz, Kepa seguraski, gaur * bertan estraditatu dute Estatu espainolera. Kepa 94-07-07an detenitua izan zen Baionako herrian eta La Santé, Pissy eta Fresnes kartzelatik pasa da. Gaur egun, Muret espetxean

aurkitzen da. Hamar urteko kartzela zigorra ezarri zioten. 1980tik errefuxiatua zegoen eta Baionako Bar Pyreneesen GALEk egindako atentatuan zauritua gertatu zen.

Bi kasu hauek, estatu eta espetxe frantsesean gertatzen ari denaren adibide txikiak besterik ez dira. Estatu frantsesean, gure presoak, kasu askotan, estatu espainolean baino okerrago daude eta euskaldunei dagokionez behintzat, han ere ez dago demokraziarik. Borroka gogorra eta luzea da eta Euskal Herria errespetatuz bakarrik, konpondu dezakegu egoera tamalgarri hau.

**Maixabel
(Senideak-Gureak)**

* Eskutitza herenegungoa da

ERAKUSKETA BITERIN

Jende asko mugitzen ari du Andoni Unanueren koadro erakusketak

■ Astelehena da azken eguna ■ Andoni gustora dago "erakusketatik jende asko pasa baita".



Andoni koadro baten gora beheak esplikitzen.

HILAREN 12a ezkerro Andoni Unanue hernaniarraren koadroak daude Biteri kultur etxean. Denetarik dago, baina, gehienak paisajeak dira, ingurukoak asko.

Andonik 68 margolan dauzka Biteriko erakusketan jarriak. Gehienek jabea badute dagoeneko, baina, hiru koadro baditu oraindik saltzeko.

JUBILATU ONDORENEAN PINTATZEN

Andonik berak esan digunez "ni jubilatuta gero hasi nintzan pintatzen". Esku ona beti izan omen du, baina, denborarik ez-eta, geroxeago hasi da

koadro eginean. Lanik gehienak enkarguz egiten ditu: jendeak halako zerbaiten koadroa eskatu eta berak egin.

"ANARKISTA XAMARRA NAIZ"

Inspirazioa noiz ateratzen duen galdetuta "anarkista xamarra naiz" aitortu digu "ez det ordu zehatzik pintatzeko". Klean gauzak ikusi eta apunteak hartzen omen ditu eta etxean pintatu; gero, argazki batetik-edo "andrea telebista ikusten ari dala ni pintatzen aritzen naiz".

Erakusketa datorren astelehenean egongo da zabalik, 18:00etatik 20:00etara. □

BOLEIBOLA

Hernani-Durango, gaur, 16:30

■ HERNANIARREK ez dute partidu alerik galdu. Orain arte zazpi partidu jokatu dituzte; gaur, zortzigarrena, Hernaniko Kiroldegian. Itxuraz, partidu gogorra izango da. □

Santa Zezilia kontzertuak gaur, 19:00

■ MUSIKOEN patroiairen omenez arituko dira, Txistulariak, Abesbatza, Dantzariak... Denak Sandiusterrin. □

Andra Mari Mirarigileari Hirurrena

■ BIHAR, San Juan Bataiatzailearen parrokan, 18:45-etan Errosario Santua eta 19:00etan Meza Santua. Astelehen-astearean berdin. □

IRAGARKI MERKEAK

■ Baserrian gorotza daukagu sobrante eta behar duenari emango genioke debalde. Interesatuak deitu: ☎ 943. 33 04 62

■ Mendiko kamioia salduko genuke. GMC bat da. Interesatuak deitu: ☎ 629. 29 36 63

ADARRAGA Konfitegia Pasteldegia

Urbietan Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10



KIROLAK - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA	TALDEAK	NON	NOIZ	WATERPOLOA	TALDEAK	NON	NOIZ
Gorengo maila	Trintxerpe-Hernani	Molinao	Gaur, 16:00	Eusk.H. Liga	Askartza-Hernani	Bilbo	Bihar, 12:30
Emakum. liga	Hernani-S. Ignacio	Zubipe	Bihar, 16:30	Eusk.H.L. Emak.	Rio Pico-Hernani	Kanpoan	Bihar, 15:30
1. Erregionala	Intxaurrondo-Hernani	Matigoxotegi	Gaur, 17:15	Eusk.H.L. 2.maila	Castellae B-Hernani B	Kanpoan	Bihar, 14:30
Gazteak. L. Naz.	Hernani-Athletic	Zubipe	Gaur, 16:30	ERRUGBIA	TALDEAK	NON	NOIZ
Gazteak Ohor.	Hernani-Urola	Zubipe	Gaur, 12:00	L. nazionala	Hernani-UPV Bilbao	Landare	Bihar, 12:00
Kadet. Ohor.	Hernani-Bergara	Zubipe	Bihar, 11:30	Kadetea. Euskal	Bera Bera-Hernani	Anoeta	Gaur, 15:00
Kadet. 2.maila	Herrera-Hernani	Herrera	Gaur, 13:00	Infant. Lagunar.	Hernani-Atl.S Sebastian	Landare	Gaur, 10:30
Haurrak Ohor.	Herrera-Hernani	Herrera	Gaur, 11:30	BOLEIBOLA	TALDEAK	NON	NOIZ
ESKUBALOIA	TALDEAK	NON	NOIZ	1. Autonomika	Hernani-Sapuerri	Kiroldegia	Gaur, 16:30
Euskadiko L.	Hernani-Lakua (Gast)	Kiroldegia	Gaur, 19:00	Kadet. neskak	Billabona-Hernani	Billabona	Gaur, 12:00
PELOTA	BIKOTEAK	BIKOTEAK	NON	NOIZ			
Eskuz binaka infantilak	Gazteleku	Ojuel-Arregi	Andoain	Gaur, 16:15			
Eskuz Binaka kad.	Ilunpe	Gurrutxaga-Gorrotzategi	Azpeitia	Gaur, 16:00			
Paleta goma neskak	Hoz-Salaberria	Burutaran-Valero	Kiroldegian	Gaur, 16:15			
Eskuz Binaka jubenilak	Otegi-Elizalde	Aurrera (Tolosa)	Kiroldegian	2garren partidua			
Eskuz Binaka jubenilak	Alvarez-San Sebastian	Ilunpe (Azpeitia)	Kiroldegian	3garren partidua			
Eskuz banaka kadeteak	Mikel Arrieta	Zazpi Iturri (Amezket)	Kiroldegian	Bihar, 10:30etan			
Eskuz Binaka kadeteak	Apaolaza-Zurutuza	Mundarro	Kiroldegian	2garren partidua			
Paleta goma neskak	Manzisor-Martinez	Intxaurrondo	Kiroldegian	3garren partidua			